



Gorka Zozaia - @zotz_
Kimikaria

3202

Ortzi-muga gorritzen ikusi du Melen begiak, ametsetik piztu berri. Bigarren zabaldu duenean gorriago ikusi du, biziago, eta bigarren begia zabalduz esnatu da, egunarekin bat. Hegazkineko leku estuan arteztu denerako, ortzi-muga gainditu berri duen Eguzkiak aurpegia igurtzi dio. Ederra zaio egunsentia lainoen gainetik eta ez du berehalakoan konprobatu amaren egoera, esnatzen den bakoitzean egiten duen legez. Ongi dagoela konfirmatu duenerako, zeruan pizten hasi den urdin ilun sakonak busti du Melen bereizmen ertaineko erretina, baina bere gogo ez da dagoeneko zentzumenak irakurtzen ari, ehunka kilometrora dago; bizi egitasmo berrian.

Hilabete batzuk lehenago, gero eta pisutsuagoa egiten ari zitzaion zurrumbiloa Meli. Informazioa bildu eta modu esanguratsuan aurkezten aritu izan da azken urteetan adimen zerbitzu anitzetan, eta horixe egin izan du egunerokoan, edozein unetan, bere beharrak asetzeko. Hamaika estimulu milioika nortasun biltzen diren metropolian. Badira asteak non soilik ametsetan hartzen ahal duen atsedean. Gaztetan datu kantitate handiko atazak ebazteko prestatu bazen ere, eta lan horretan adimen bikaina izanagatik, nazkatu da Mel bizimodu horrekin; ez dio gehiago 13V12 izenari erantzun nahi.

Melen gogo, baina, ez dago atzera begira. Fusioak bultzaturiko hegazkina baina arinago heldu da helmuga duen etxaldera, nodo batetik bestera, sare gero eta banatuagoan barna. Melen gogo, baina, ez dago atzera begira. Fusioak bultzaturiko hegazkina baina arinago heldu da helmuga duen etxaldera, nodo batetik bestera, sare gero eta banatuagoan barna. Apenas ahal duen informaziorik bildu, basamortu itxura duen lautada horretan. Ikusten ahal du etxaldearen kanpoaldea, mugimendu handirik barik, eta entzun abereren bat noizbehinka. Seinale gehiagorik ez, heltzera itxaron beharko du bere bizileku berria ganoraz hautemateko. Urduri dago Mel, baina begi keinu batez laguna portuan zain duela konprobatu eta lasaitu egin da. Lagunaren irribarra kutsatu zaio ahoan.



GETTY IMAGES

Hegazkina hiriko portu zentralera heldu denean, gogoz kontra irten behar izan du Melek makinen terminaletik. Halakorik XXXII. mende betean! Ez du oso altu pentsatu, baina, badaezpada, bera baita arrotza hiri zahar honetan. Beldur puntu batekin igaro ditu terminaleko kontrolak, baina gelditu gabe irten da portuaren erdigunera, zuzen bere lagunaren kokapenera. Irribarra berriz ere, orain begien bidez kutsatua ahorraino. Besarkatu eta behera egin dute azkar, laster irtengo den trena hartzera.

Parez pare eseri dira trenean, eta une horretan utzi dio lagunak bere gogo partekatzeari, ahoa zabalduta eta ahots kordak dantzatzu esateko; "Kaixo 13V12, aspaldiko!". Laguna belarritik hautemateak poztasunez bete du Mel. Data eguneratzeko instant bat hartu du erantzun aurretik, eta aldatu du urtea 3202tik kristo ondorengo 2252ra. Bizitzear dituen nortasun aldaketetatik lehena besterik ez. Inguruko isiltasuna gero eta nabariagoa zaio, ez da apenas zaratarik heltzen trenak gurutzatzen dituen eremu mortuetatik. Isiltasunaren isiltasunaz, bere gogo inoiz baino ozenago entzuten du; desio bizi du gorputz berrian sartzeko, datu berriak modu berrietan antolatzeke. "Ez Lur, esaidazu Mel aurrerantzean". •